

Eta nola dauka zure aitak izena?- galdetzen zidan ingelesez, "What is your father´s name? (edo horrelako zerbait)", ingeleseko irakasleak.

Nik, behin eta berriz, eta nire bizitza motz osoan bezala, beti bezala, ez nion ezer erantzuten.

Isilik geratu nintzen.

Ez nigatik, klasea ez aztoratzeagatik. Nire irakaslearen aldeko nire esfortzu pertsonala zen; benetan ingeleseko irakasle hau jatorra iruditzen zitzaidan.

Erantzuten banuen, ondo nekien zer gertatuko zen.

Azken aldian herri batetik, hiri batera eta alderantziz, pasatzen genituen hilabeteak. Dagoeneko banekien gure leku aldaketak dei baten ondoren zirela. Telefonoak jo eta elkarri harrিতuta begiratzen ziotenean, telefonoa azkar hartzen zuten. Beraien aurpegiak larritzen hasten ziren, motxilak betetzen hasten ginen eta: Hondarribitik Irunera, Irunetik Agurainera, Agurainetik Gasteizera, Gasteiztik Laguardiara, Laguardiatik Bilbora... Egun horretan hor geunden, Bilbon.

Leku berrira iristen ginenean, ikastola berria eta ingeleseko klase partikular berriak izaten nituen. Ingeleseko klaseetara joan nahi ez nuela esaten nuen bakoitzean, hirurok mahai inguruan esertzen ginen eta biek hitz egiten zuten, bakoitzak bere zatia. Batak lehengo zatia: ingelesa beharrezkoa zela mundu osoan eta ez dela jakiten bizitza moderno honetan ze lekutan bukatuko den. Besteak bigarren zatia: beraiek ere gaueko eskolan matrikulatuko zirela eta hiruron artean ingelesa ikastea oso erreza izango zela. Gero beti gurekin eramaten genuen Londreseko posterrari begira gure txisteak eta barregurazko istorioak asmatzen genituen. Amaitzeko Ainhoak "Tea is ready" antzerki testua ateratzen zuen eta hiruron artean antzezten saiatzen ginen.

Obra honetan ingelesez zegoen esaldi bakarra hori zela kontutan hartuta ingelesa ikasi baino, hirurok antzezten ikasi genuela esan behar dut.

Eta hurrengo egunean pixka bat gusturago joaten nintzen ingeleseko partikularrera. Seigarren klasean edo What is your father´s name? Galderari erantzuten nionean:

-Ez , nik aitarik ez daukat- esaten nuen ingelesez.

Isiltasuna.

Jada isiltasun honi bere denbora ematen nion, segundo batzuk nahikoak ziren, ume guztiak eta irakaslea urduri ipintzeko. Gero jarraitzen nuen:

-Baino bi ama dauzkat

Eta orduan klasea aztoratzen zen, orduan...

-Orduan Ainhoa ez da zure izeba...- esaten zuen batek.

-Hori ezin da izan!-oihukatzen zuen beste batek.

- Nola, nola jaio zara orduan?-zioen besteak.

Noski, hau dena euskaraz, (Bilbon gehienak erdaraz), baina inor ez ingelesez mintzatzen. Orduan ingeleseko klasea amaitzen zen nahiz eta irakasleak ingelesez isiltzeko esan, nahiz eta nik hitzik ez esan.

Ba hauxe, hauxe etorri zitzaidan burura zuk agur esan zenidan egun bertan. Zure usaina kentzen ari nintzenean, gure ametsak azken aldiz amestea amesten nuenean. Hauxe, hauxe etorri zitzaidan burura nire amen bizitza kontatu bezain laster beldurtuta alde egitean atearen hots hotz hori entzun nuenean.

Hauxe, eta Amaiak behin eta berriz errepikatzen zuen esaldia: "Jendeak asko hitz egiten du, baina ez daki ezer".

Nik ere Ainhoa bezalako bat ezagutuko banu berarekin bizitzera joango nintzatekeela uste dut, nahiz eta azkenean Ainhoa, tokitik tokira ibiltzen nazkatu, Amaiak beti ihes egin behar izaten zuelako.



Mariluz Benítez García